

# KANALAK

**Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?**

Lehenik eta behin, 2.fasean aipatu genuen bezala, komertzial moduan joango ginateke dendaz denda, zehazki Maria, salmentarako dituen abileziak-eta aprobetxatuz. Hala adostu dugu taldean, hasieran behintzat, gure denda fisiko propioa irekitzea baino errentagarriagoa iruditzen zaigulako beste denda batek gure produktua saltzea.

Gainera, dendetara joan baino lehenago, adostua eta hitz eginda edukiko genuen taldean Mariak zer ezaugarri aipatu beharko lituzke ispilua edo produktua saltzeko orduan, azkenean, dendariak produktua saltzea merezi duela pentsa dezan eta argi izan dezan.